

MENDIRIZ MENDI, 75. URTEURRENERA HELDU GARA!

Mendiriz Mendi Elkartea



Antonio Yeregi, Jose Luis Madina, Damaso Uria, Antonio Agirresarobe, Marcelo Ruiz, Julia Larrañaga eta Ramon Ruiz, Aitzgorrin, 1946ko uztailaren 14an.

Nork esango luke! 1946. urtean eginiko lehen urratsek 2021. urtera arte eraman gaituzte. Zaila izan daiteke konprenitzea, eta inor ez dugu jarriko estutasun horretan. Zaila izan daiteke 75 urteotan egin dugunaz jabetzea, eta inor ez dugu jarriko estutasun horretan. Eta guri, Mendiriz Mendikoei, galdetu izan baligukete? Bada, erantzuna ez dugu. Agian, gailur batean eskegita egon daiteke, edo ibar eder baten ezkutua, edo, agian, inork zapaltzen ez duen bidezidor xume batean. Nork daki!

Bai, Mendiriz Mendik 75 urte bete ditu. Eta, konprenitu ala ez, jabetu ala ez; argi eta garbi daukagun gauza bakarra da ibilbide honetan izan dugun helburu bakarra gure herrian, Hernanin, mendizaletasuna bultzatzea izan dela. Gainera, alderdi guztietatik begiratuta. Mendizaletasunak dituen printzipioei oinarri-oinarritik heldu dizkiegu. Eta, oso xume bada ere, 75 urteko ibilbide horretan txertatzen saiatu gara. Eta ez da gutxi!

Horregatik diogu, 1946. urteko ekainean, behar bada jakin gabe, elkarte honetako hazia erein zuten haien ahotsa jarraitzen dugu izaten. Edo, behintzat, horretan ahalegintzen ari gara. Urteak joan ahala, hastapen haietan lan egin zutenen ilusioa eta erantzukizuna beste batzuk hartu dituzte, tinko eta ete-nik gabe lan eginez, Mendiriz Mendiren oinarriak eta ideak finkatzea lortu arte.

Borondatezko lana egiten dugu; hori badakizue. Gizarte honetan itzaltzen ari den auzolanaren bandera altxatzen jarduten dugu; lau haizetara hedatzen. Merezi duelako, horretan sinetsi egiten dugulako eta ohorezko tokia behar duelako. Erantzukizun horretan erabat murgilduta, inolako ordainik eskatu gabe, gure elkartetik makina bat lagun igaro dira. Dagoeneko, batzuk ez daude gure artean; beste batzuek, aldiz, beste bide batzuk hartu dituzte. Elkarteko kide izan diren eta diren guztiek ohorezko lekua behar dute izan. Haien lanak Mendiriz Mendiren ametsa egia bihurtu baitute. Pasio komun batek bultzatuta zuen eta gure txokoa, hots, elkartea, guztion ondare bihurtu dugu. Horiei guztiei gure esker beroenak. Baita ere, aurrerantzean Mendiriz Mendi garatu eta aberasteko lan egiteko prest zaudeten guztiei. Gizakien obra guztiak bezala, gure elkartea ere gutariko bakoitzak bizi ematen dion neurrian bakarrik izango delako errealitate, eta ez amets.

75. urteurrenera heldu gara, eta jakin ezazue prest gaudela bidean jarraitzeko. Ez gara iragarleak, baina "Hernani" izeneko aldizkari honetan bertan, 50 urte bete genituenean, Mendiriz Mendiren historiaren atak zabaltu eta honako izenburuarekin aurkeztu ginen: *"50 urte? Bai, eta askoz ere gehiago..."*. Iragarpen hori, agian, ume baten xalotasunarekin egin genuen. Izan daiteke, baina, tira, asmatu genuen.

75 urte bete ditugu, baina, zoritxarrez, Covid-19ak gure gizartean sortutako pandemiak eragotzi egin digu urte honetan guztian zehar antolatutako ospakizuna behar bezala betetzen. Batzuk ezin izan ditugu aurrera eraman; beste, batzuk, berriz, bai. Baina inportanteena da urteurren berezi hau betiko izango dugula geure bihotzetan gordeta. Inork ez digu kenduko ibilbide honetan lan egin eta ardura

izan dutenen eskuzabaltasunaz gozatzeko aukera. Eta hori guztia Mendiriz Mendira hurbildu diren guztiekin partekatu nahi izan dugu.

Horregatik geure hastapenetara eraman nahi zaituztegu. Ez gara luzatu; ez, 50 urte bete genituenean aldizkari honetan luze eta zabal hitz egin baikenizuen gure historiari buruz. Baina egin ditugun hurrengo 25 urteak testuinguruan jartzeko, bi zertzelada baino ez ditugu aipatuko.

Hastapenen bidean

Aurreratu dizuegu 1946. urteko ekainean sortu ginela. Ez dakigu zein den eguna, baina inoiz ahaztuko ez dugun data seinalatua dugu. Urte horretan Mendiriz Mendira jaiotzeko garaia iritsi zitzaion, nahiz eta urte haietan CD Hernaniren adar bat izan. Urteek aurrera joan ahala, elkarteak nolabaiteko onespena behar zuen; hain zuzen ere, Espainiako Mendi Federazioarena. Federazio horretan onartua izatearena, alegia.



Eta horretarako, Juan Otamendi eta Antonio Agirresarobe elkartekideek 3.046 metroko garaiera duen Argualas mendia igo zuten. Hain zuzen ere, 1954. urteko abuztuaren lehendabiziko egunean. Horixe zen federazio espainiarrak eskatzen zuena elkarte gisa onartzeko; hots, *hirumilako* bat igotzea. Era horretan, Mendiriz Mendi elkarteak mendi federazio horren kide berriaren txartela jaso zuen.

Elkartearen lehenengo boletina, berriz, 1959. urtean jaio zen. Orrialdetxo horiek oso gai interesgarriak argitaratzen zituzten. Nahiz eta gutxi iraun zuen, 1984. urtean, elkartekide talde batek bultzatuta "Ilargiaren itzalpean" aldizkariak lekukoa hartu zion.

Bestalde, 1964.ean autonomia lortu bagenuen ere, 1986. urtean CD Hernanirekin lotura guztiak erabat moztea erabaki zen. Beraz, urte hartan Mendiriz Mendi del CD Hernani izatetik, Mendiriz Mendi Elkartea izatera pasa zen.

egiten ari garen ibilbidean elkarteak egoitza ezberdinak izan ditu, eta, egun, 1995.ean Udalak utzitako bulego ederra inauguratu genuen. Ez zen izan el-

karteak izan zuen aldaketa bakarra, besteak beste, egungo helburuak ez baitira hasierako urteetakoak bezalakoak. Hastapenetan, ekintza nagusia mendizaletasuna zuen, eta horrekin lotuta irteerak mendi batera. Denbora luzez irteera horiek erantzun ona izan zuten, baina 1970eko hamarraldian autobusak betetzeko arazoak izan genituen. Irtenbide gisa, irteerak eskualde mailan antolatzen hasi ginen.

Aipatzekoa da ere, 1990etik aurrera egutegi propioa ateratzen hasi ginela: helduentzat zein gaztetxoentzat bideratuta. Zuhaitz Egunak edo Mugarri Festak ere, leku berezia izan zuten; guk geuk antolatuta, gainera. Mendizaleen artean izan ziren aldaketak medio, beste erabaki bat hartu genuen: mendirako zein eskirako tresneria alokatu. Horietako mendizale batzuk goi mailako jarduerak egin zituzten. Eta, zalantzarik gabe, entzutetsuena Martin Zabaletarena dugu. Gure elkartekideak munduko mendi garaiena, Everest (8.848 m), igotzen lehen euskal mendizalea izan zen. Balentria hori 1980ko maiatzaren 14an erdietsi zuen.

Mendiriz Mendiren mende erdiarekin batera, ekitaldiz betetako urtea antolatu genuen. 50 mendi igo genituen: 49 Euskal Herriko tontorrak eta guretzat esanahi berezia duen Argualas (Huesca). Horrez gain, 50. urteurreneko kamiseta atera genuen, eta ezin dugu ahantzi Santa Barbarara eginiko erromeria eta egun pasa.

25 urte aurretik

Arestian aipatu dizuegu, elkartearen baitan zein mendizaleen artean hainbat aldaketa bizi izan ditugula. 1985. urtera arte, adibidez, irteerak herri batean hasten genuen. Gailurra egin eta gero, herri berdinerara jaisten ginen. Baina data horretatik aurrera, tontorra egin, bai, baina "helmuga" beste herri batean edo leku batean zehazten zen.

Mugarri Festari dagokionez, hasieran, urtero, ibilbide guztiak egiten genituen. Ondoren, bi ibilbide ezberdin antolatzen hasi ginen: bat gaztetxoentzat eta bestea helduentzat. Gogoratu behar dugu gaztetxoek irteetara helduak joan daitezkeela. Bide batez aipatu behar dugu murrizketa horrek baduela zio bat: gero eta mendizale gutxiago batzen zen.



1994ko Mugarri Festa, irailaren 24an, Antxistan.



Etixerako itzuleran auto istripu baten ondorioz hil ziren Aitor Garcia, Felix Armendariz eta Arantxa Zuza *Pitxi*. Hirurak, argazkian, 1993ko urriaren 17an, Soilan.



2014ko otsailaren 16an eginiko *Hernani ezagutuz* irteera, Oberanera.



Gaztetxoekin irteerak 1991. urtez geroztik egin dira: 1999ko urriaren 30-31an, Artikutzara; 2011ko otsailaren 13an, Bianditzera.

Herriko ibilbideek badute elkartean oinarri berezi bat. Jarduera hau antolatzen hasi ginenetik soilik irteera bat egiten da. Lehen urteetan, adibidez, bisita gidatu modura egiten genuen. Hain zuzen ere, Historia lizentziatua den Txuso Gomezen eta Biologian lizentziatua den Iñaki Sanz-Azkueren eskutik. Gida lana hauek bertan behera geratu ziren, eta besterik gabe irteera soil bat egiten hasi ginen. Ez genuke aipatu nahi egin, baina horietako irteera batean jazoera tamalgarri bat bizi izan genuen. Usoko Biran izan zen. Akolatxa inguruan, bihotzekoak jota, Pako Seco zendu zitzaigun.

Gaztetxoen irteerak zutabe izan dira elkartearen filosofian. Esaldi askok dioten modura, haiek gabe ez dugu etorkizunik. 1991. urtez geroztik, asteburuko irteera bat egin da. Bernedon hasi ginen. Zorigaiztozko ezbeharra jaso genuen. 1993.ean Bernedotik itzultzen ari ginela auto batek istripua izan zuen, eta etxeko hiru kide hil ziren: Aitor Garcia gaztetxoa eta Arantxa Zuza eta Felix Armendariz helduak. Ezbehar horren ondoren, irteerak autobusez egiten ditugu.





2008ko otsailaren 16ko Zuhaitz eguna. 2013ko otsailaren 3ko eski ikastaroa, Pont d'Espagnen. Eta 2015 maiatzaren 24ko eskalada ikastaroa.

Hurrengo urteetan, berriz, Artikutzara joaten hasi ginen. Eta 1990.ean, herriko ikastetxeekin elkarlanean Eskola Kirola egitasmoaren barruan mendi-zaletasuna lantzen hasi ginen.

Aldaketen artean aipatzekoa da ere Zuhaitz Eguna izan dituen. Duela gutxira arte, gaztetxoekin larunbatean ospatzen zen, eta igandean helduekin. Baina, egun, Udalak horrela erabakita, denok elkarrekin egiten dugu.

Bestalde, eskalada ikastaroak hasierako moduan egiten ditugu, eta eskia aipatzen badugu: ikastaroa eta irteera bana. Eta berrikuntzen artean elkartearen web gunea dugu:

www.mendirizmendi.com

Eta Mendizale Asteari buruz, zer esan genezake? Bada, gutxi gorabehera 90eko hamarraldiaren hasieratik aurrera bazkide talde batek ekimen horren ardura hartu zuela. Zinez, eskertzekoa da, zuzendaritza taldeari "zama" ederra kendu diolako. Bide batez, bazkideei zuzenduta, aste horretan urte batzuk badira GPSaren ikastaroak eskaintzen direla. Irauten dituen bost egun horietan proiektzioek zein argazki lehiaketak protagonismo osoa izan dute. Berrikuntzen artean bada bat azpimarratzekoa dena: "herritarren" izena hartu duen proiektzioa.

Elkartearen barruan izan ditugun eztabaiden artean merezi du hurrengo aipatzeak. Urteen poderioz mendizale federazioek bultzatuta ibilbide asko margotu edo markatu dira. Guk, bederen, begi onez



Mendiriz Mendiko kideek elkarteko mendi kuttuna berriro igo zituzten 2021ko uztailaren 24-25ean: Argualas mendia, Panticosa.

ikusitako eta onartu ditugu. Onartu soilik ez, erabili ere bai. Eta, adibidez, Mendiriz Mendikook GR11 eta Ar-rainaren eta Ardoaren ibilbideak (GR38) egin ditugu.

Mendia egiteko lur eremuak ere zabaltu ditugu. Ga-rai batean Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta, gehienez, Lapurdira joaten ginen. Gehienak, egun bateko irteerak izaten ziren. Baina, egun, Pirinioeta-ko bi isurialdeak, Errioxa, Soria, Burgos, Leon, Kanta-bria, Palentzia, Ávila eta beste eskualde batzuk bisitatzeko ditugu.

Irakurtzen den bezala, era askotako mendi irteerak egiten ditugu. Eta hauetan guztietan, bazkideek egundoko lan egin dute. 1992. urtean, Inaxio San-zek elkarteko lehendakaritza utzi zuenean, batzar batean honakoa proposatu zuen: irteeren ardura zuzendaritzak hartu beharrean, bazkideek hartzea. Eta, hain zuzen ere, urte horretatik aurrera bazki-deak dira lema hartu dutenak. Horixe espero ge-nuen, eta txalotzekoa da bazkideek egiten duten lan hori; ondo erantzunez eta makina bat irteera prestatuz.

Hasiera-hasieratik garbi genuen irteera guztietan segurtasuna bermatu behar zela. Horretarako, ibil-bidearen aurrean eta atzean doazeneak walkie bana eramaten dute, bidegurutzetan taldea asko luzatzen bada, itxaroten egiten da den-denak elkartu arte. Edo arduradun bat puntu horretan gelditzen da mendizaleari nondik joan behar duen argitzeko.

Elkarteko irteerei amaiera emateko, lagun handi bat gogora ekarri nahi dugu. Martin Ansa da, hots, az-ken 31 urteotan egin ditugun irteeretan autobus gi-daria izan duguna. Duela gutxi joan zitzaigun. Soilik goraiatu behar dugu Martinen gizatasuna. Mendi jarduera horretatik oso nekatuta iristen ginenean, ahal zuen neurrian beti laguntzeko prest zegoen.



Iritsi zaigu, beraz, Mendiriz Mendiren 75. urteurre-na. Eta elkartek dituen kideei dagokionez, baieztatu behar dugu sendo eta indartsu iritsi dela. Aurten, 576 federatu eta bazkide gara. Soilik bazkideak direnak: 102. Eta guztiok urteurren berezi hau behar bezala ospatzeko egitarau oparoa antolatu dugu. Antolatu, bai, baina pandemiak gure aurrean saihestu ezin den murru bat jarri digu. Horrekin esan nahi dugu ekitaldi asko bertan behera utzi behar izan ditugula. Bederen, joan den uztailan, gure mendi kuttuna Ar-gualas berriro igo genuen. Urrian ere, gaztetxoekin Finalisten Eguna ospatzeko aukera izan zen.

Amaiera ordua heldu zaigu, eta Mendiriz Mendi Elkartetik azken 75 urteotan zuzendaritzan egon diren lagun guztiak gogora ekarri nahi ditugu. Go-raipatzeko da, adibidez, Txé Zuzak hartutako ardura; azken 25 urtetik 23tan presidente izan dugu. MILA ESKER, Txé!

Bagoaz, baina ez dugu adiorik esango. Mendiriz Mendik 75 bete berri ditu, baina elkartean argi eta garbi dugu eginiko ibilbideak ez duela etenik izango. Izan ere, gure betebeharra mendizaletasuna bultzatzea da. Elkartea sortu genuen, baina ez da soilik gurea, hernaniar guztiena ere. Mendiriz Mendi zuen etxea da, eta beti ateak zabalik izango dituzue.